

# Lan akordio berria zertarako?



**Euskal eskola publikoa indartzeko!**

- ✚ **Ikastetxeetako baliabideak eta langileen lan baldintzak hobetzeko!**
- ✚ **Guztiok borondatezko erretiro aurreratua hartzeko aukera izateko!**
- ✚ **Ordezkoen lan baldintzak hobetu eta egonkortasun bideak irekitzeko!**
- ✚ **Formazioa fundamentuz egiteko!**
- ✚ **Osasun eta segurtasun neurri eraginkorrak izateko!**
- ✚ **Genero berdintasunaren aldeko neurriak zehazteko**
- ✚ **Ordutegiaren murrizketa 55 urtetik aurrera izateko!**



2010eko otsaila

## 1.- BALIABIDEAK

- ▶ Figura berrien ezarpen iraunkorra, figura osoak edo dagozkien orduak Lanpostuen Zerrendetan jasoz: IKT, Elkarbizitza, Hizkuntza Normalkuntza, proiektuen koordinaziorako lanpostuak ...
- ▶ Irakastorduen murrizketa maila guztietan, azken urte hauetan metatutako lanei aurre egiteko: Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan 22 irakastordu; Bigarren Hezkuntzan 16 irakastordu.
- ▶ Tutoreek ordutegi lektiboan 2 orduko gutxieneko murrizketa beren eginbeharrak burutu ahal izateko.
- ▶ Irakasleen funtzioei (koordinazio lanak barne) atxikitzen zaizkien ordu kredituak definitzea.
- ▶ Zuzendaritza taldeei eta ardura orokorreko lanpostuei dagozkien ordu kredituen ugaritzea, hauen antolaketa ikastetxeen esku utziz. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe handietan zuzendaritzako figura osagarriak gauzatzea.
- ▶ Irakasle/talde ratioen handitzea eta ikasle/gela ratioen murrizketa.
- ▶ Haur Hezkuntzan (eta bereziki 2 eta 3 urteko geletan) bikote pedagogikoaren ildotik irakasle-kopurua handitzea.
- ▶ Eskola txikien, urrutiko eskolen eta alde behartsuan dauden eskolen egoerak bereziki zaintzea.

## 2.- LAN BALDINTZAK

- ▶ Borondatezko erretiroaren baldintzak hobetzea: irakasleek alde aurretiko borondatezkoa hartu ahal izango dute 55 urte bete edo 30 urteko kotizazioa egin eta gero. Neurri hori irakasle guztientzat izango da, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean daudenentzat zein klase pasibokoentzat.
- ▶ LOEren xedapen iragankorraren erretiro-baldintzen mugarik gabeko luzapena (aurretiko erretiroa 60 urtetatik aurrera).
- ▶ Errelebo kontratua (edo "jubilación parcial") funtzionario interinoentzat, langile guztiek dituzten baldintza berdinetan.
- ▶ Borondatezko erretiroagatiko kalte-ordainaren zenbatekoa handitzea.
- ▶ 55 urtetik aurrerakoentzako ordutegi lektiboaren murrizketa.
- ▶ Soldataren %1aren igoera eta ondorengo urteetan IPC/KPI-aren parekoa gutxienez.
- ▶ Aparteko soldatetan %100 kobratzea,.
- ▶ Tutore eta ziklo koordinatzaile funtzioei atxikitako diru-pizgarriek sortu duten diskriminazioa zuzentzeko diru-partida zehaztea, ordainsariak berdintze aldera.
- ▶ Seiurtekoen ordainketan kapitalizazioaren sistemari eustea.
- ▶ Itzarrirako diru ekarpenak borondatezkoak izatea.
- ▶ Zuzendaritzako kideek egin duten lana opor-denborarekin konpentsatzeko aukera izatea.
- ▶ Helduen edo haurren zaintzagatiko ordutegi murrizketetan Segurantza Sozialaren ordainketa osoa egitea, egoera honek langilearen kotizazioetan kontrako eraginik izan ez dezan.
- ▶ Lizentziak eta baimenen atalean hobekuntzak eranstea, besteak beste:
  - Amatasun baimena 20 astekoa eta Aitatasun baimena 4 astekoa izatea.
  - Guraso bakarrek familien kasuan, bi baimenak pilatu ahal izatea (aitatasuna gehitu).
  - Lehen mailako odolkidetasuneko ahaideen gaixotasun larriagatik ondoz ondoko edo artekako 5 lanegun; bigarren mailako odolkidetasuneko ahaideen gaixotasun larriagatik ondoz ondoko edo artekako 3 lanegun.
  - Lehen mailako odolkidetasuneko ahaideen heriotzagatik ondoz ondoko 5 lanegun; bigarren mailako odolkidetasuneko ahaideen heriotzagatik ondoz ondoko 3 lanegun, heriotza-egunean bertan edo biharamunean hasita.

- Senideen gaixotasun larriagatiko lizentzia-egunak ondoz ondokoak edo artekakoak izango dira, lehenengo lizentzia-egunetik 14 eguneko epearen barnean.
  - Lehenengo odol-ahaidetasuneko mailara arteko senideak, edo beste seniderik, elkarrekin biziz gero, osasun kontsulta, tratamendu edota azterketara laguntzeko lizentzia.
  - Lehen mailako odolkidetasuneko ahaideen gaixotasun oso larriagatik, lanaldiaren % 50eko murrizketa ordaindua.
  - Ohiko etxebizitzaz aldatzeagatiko lizentzia, errolda-datatik 15 eguneko epearen barruan hartu ahal izatea.
- ▶ Indarkeria sexistaren kasuetan eszedentzia izateko eskubidea denbora muga barik eta zerbitzuen betekizunik gabe, lehenengo bi hilabeteak ordainduta eta seme-alabarik izateagatik legokiokeen familia-sariaz. Halaber, lekualdatze-lehiaketan parte hartu ahal izatea plaza berean bi urteko epea bete gabe.
  - ▶ Istripuagatiko aseguruaren polizak eguneratzea, estaldurak mantenduz eta kalte-ordainen zenbatekoa igotzea.
  - ▶ Bizia seguruaren kasuan, aurrekoan bezala, zenbatekoa igotzea
  - ▶ Nomina aurrerapenetan diru-kopuruak handitzea
  - ▶ Irakasle ibiltarien kasuan, lan baldintzen errebisioa hobekuntzak egiteko

### 3. ENPLEGUA EGONKORTZEKO NEURRIAK / ORDEZKOEN LAN BALDINTZAK

#### LANPOSTUEN ZERRENDAK (LZ-RPT) ETA PLANTILLAK

- ▶ Lanpostuen zerrendek (LZ-RPTak) ikastetxeetako errealitateari lotuago egon behar dute arduraren eta proiektu berriei erantzuna egokia emateko. Beraz, ikastetxeen funtzio eta betebeharrak berriei dagokien ordu kopuruak isla eduki beharko du Lanpostuen Zerrendetan: IKT arduraren, lan-arriskuen prebentzioko arduraren, normalkuntzako arduraren, ikastetxearen proiektu finkoen orduak...
- ▶ Neurriak hartu Lanpostuen Zerrendak errealitatearen arabera eguneratzeko. Beharrezkoa da Mahai Orokorreko akordioan LZetan finkatzeko aurreikusten den plaza kopurua (2.500) zabaltzea eta prozedura eta plaza horien ezaugarriak negoziatzea.
- ▶ Ikastetxeei lanpostuak definitzeko eskumena aitortu behar zaie, ikastetxearen errealitateari eta beharretatik abiatuta.
- ▶ Irailaren 1ean plantilaren %100 ak ikastetxean egon behar du.
- ▶ Urte sabatikoaren antolaketan aukera zabaltzea sabatikoa bost urteren epearen barnean disfrutatzen. Borondatezko erretiroarekin lotzeko aukera izatea.

#### EPE DEIALDIAK

- ▶ Mahai Orokorren Akordioan aurreikusten diren irakasleentzako 3.600 plaza, gehi erretiroen ondorioz sortzen direnak, gutxieneko kopurua da.
- ▶ Negoziatzea bideratzea oposizioen ezaugarri, baldintza, baremo, egutegi, banaketa eta abarren inguruan.
- ▶ Plaza berri guztiek HE-2koak izan behar dute.
- ▶ EPE deialdietan bigarren espezialitatea lortzeko aukera gauzatzea.

#### ORDEZKOEN EGONKORTASUNA ETA ORDEZKAPENAK

- ▶ Irakasle interinoen lanari egonkortasuna emateko bideak aztertuko dira, oraingo prozedurak hobetze aldera. Ordezkapenetan aritzen den irakasle kopuru bati lan egonkorra bermatzeko, ordezkapenetarako urteko bakanteak sortzeko aukera aztertuko da.
- ▶ Irakasle guztien ordezkapenak lehen egunetik ordezkatuko dira eta ordezkapena luzea denean, ordezkoa eta titularra ikastetxean elkarrekin koordinatzeko egun batez luzatuko da ordezkapena.
- ▶ Ikasturte osoko ordezkapenetan izendapena irailaren 1ean egin behar da, irakasle ordezkoa ikastetxean lehen egunetik egon dadin. Era berean, ordezkapen hauek abuztuaren 31an izango dute amaiera data, bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarren Hezkuntzan.
- ▶ Finkapenari uko egin ahal izango zaio lehen urtetik bertatik.
- ▶ Lizentzia eta baimenen kontuan, irakasle ordezkoek gainontzekoen baldintzak izan beharko lituzkete, aplikagarriak badira ordezkapena burutzen den denboraren barnean.

- ▶ Errelebo kontratua -"jubilación parcial"- langile guztiek dituzten baldintza berdinetan bermatuko zaizkie interinoei.
- ▶ Ordezkapena egiten den denborak oporrekin edota asteburuarekin bat egiten duenean, adibidez, aste osoko lana egiten denean, jai-egun horiek diru-sarirako zein puntuetarako aintzat hartuko dira.

#### 4. FORMAZIOA

- ▶ Ikastetxe bakoitzak autonomia izan behar du barne formaziorako plana garatzeko behar diren ikastaroak antolatzeke eta behar dituen baliabideak eta laguntzaren ardura administrazioak bereganatuko du.
- ▶ Ikastetxeetako beharren arabera formazioa edota ikastetxe osoari dagokiona ordutegiaren barruan burutzea eta behar denean Administrazioak ordezkapenak bermatzea.
- ▶ Eskaintzen diren ikastaroen eta etengabeko formazio plangintza guztien urteroko negoziazioa, bai Garatu programaren barruan sartzen diren ikastaroetarako zein Lanbide Heziketakakoak.
- ▶ Eskaintako plazen kupo bat irakasle ordezkoentzat gordetzea.
- ▶ Bigarren espezialitatea lortzeko aukera EPE deialditan gauzatu behar da.
- ▶ Hizkuntza-eskakizunak eskuratu gabe dauden irakasleei egiten zaien eskaintza IRALEk kudeatuko du.
- ▶ IRALERen egitasmo nagusia hizkuntza-eskakizun egokia duten irakasleei begirako formazioa bideratzea izango da (R300, R400, R600...).
- ▶ Aztertuko dira eskaintza berriak irekitzeko aukerak (aholkularitza lanak euskararen normalizazio prozesuetan, atal jakinetan...)

#### 5. LAN OSASUNA

- ▶ Ikastetxeetako arrisku ebaluaketak eta arrisku psikosozialen ebaluaketak egitea.
- ▶ Azterketa medikuak urtean behin.
- ▶ Ikastetxetako segurtasun laguntzailearen ordu kreditua 4 ordutara igotzea.
- ▶ Ordu kreditua prebentzio delegatuentzat ebaluazioetan parte hartu ahal izateko.
- ▶ Lanpostuen egokitzapenak. Prozedura edo protokoloa zehaztea.
- ▶ Lanbideak sortutako gaitzak (muskulu-eskeleto arazoak, ahotsarekin lotutako arazoak, nerbio-arazoak...) gaixotasun profesional bezala katalogatzea eta zaintzea.
- ▶ Sexu jazarpenaren eta sexu arrazoiengatik jazarpenaren prebentzioa eta horren aurkako prozedura.
- ▶ Osasun arazoak direla eta hainbat irakasleri emandako zerbitzu eginkizunak bi urte baino gehiago luzatu ahal izatea, arazoiek bere hartan jarraitzen badute.

#### 6. GENERO BERDINTASUNA

- ▶ Legedian eta beste mailetakako akordioetan jasotakoak betetzea.
- ▶ Jokaera baztertzailerik eta sexu-biolentziazkoen aurre egiteko jarrera aktiboak sustatzeko ekimenak bideratzeko aukerak aztertu eta abian jarri.
- ▶ Ikastetxeei Lan tresna eta orientazio mailako laguntza zuzena eskaini.
- ▶ Ikastetxeetako formazio planetan atal hau indartzeko neurriak bideratu.
- ▶ Hezkidetzak lantzeko eta sustatzeko giza baliabideak ugaritu eta modu eraginkorrean erabili.

PLATAFORMA OSOA GURE WEB ORRIAN:

[www.stee-eilas.org](http://www.stee-eilas.org)

# STEE-EILAS



2010eko otsaila